

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5229

AGINDUA, 2023ko azaroaren 2koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira dirulaguntzak norgehiagoka-araubidearen arabera emateko oinarri arautzaileak eta deialdia, honako proiektu komunitario hauetarako: askatasunaz gabeztzeko zigorra duten eta EAEko espetxeen mende dauden pertsonak birgizartekotzeko eta haiei gizarte-arreta emateko proiektuak, eta zigortutako pertsonen espetxean, eta araubide irekian eta komunitarioan, zigor-betearazpenerako eta tratamendurako laguntza emateko proiektuak.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak 10.14 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du espetxeetako antolaketan, araubidean eta funtzionamenduan eta gizarteratze-alorrean, arlo zibileko eta zigor- eta espetxe-arloetako legeria orokorrarekin bat etorritik.

Bestalde, 12.1 artikulua gure autonomia-erkidegoari esleitzen dio Estatuaren espetxe-legeria betearazteko eskumena.

Eskumen horien bitartekoak eta baliabideak ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuaren eta uztailaren 6ko 169/2021 Dekretuaren bidez eskualdatu dira. Izan ere, bi xedapen horiek Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren 2021eko maiatzaren 10eko Akordioa onartzen dute, espetxe-arloko Estatuako legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 14. artikuluan i) letraren arabera, Justizia Zuzendaritzari dagokio espetxe-eremuan honako prestazio hauek kudeatzea: hezkuntza, gizarte-ekintza, espetxe-lana, lanerako prestakuntza, gizarteratzea eta laneratzea, kultura- eta kirol-jarduerak sustatzea, eta droga-mendekotasunak prebenitu eta tratatzea. Horretarako, koordinazioa erraztuko du Aukerak Gizarteratzeko Euskal Agentziarekin eta osasunaren, hezkuntzaren, enpleguaren eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten administrazioekin, eta gobernuz kanpoko erakundeen esku hartzeko programekin koordinatuko da.

Espetxe-politikaren funtsezko xedea da, arau-esparruaren barruan, birgizartekotzeko eta gizarteratzeko programen hobekuntza bultzatzea, eta, hartara, nazioarteko testuetan eta Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluan jasotako gizarteratze-printzipioa gauzatzea.

Espetxe-tratamendua birgizartekotzea sustatzeko bidea da, eta barneratuen trebetasunak gartzera, hobetzerak eta aurretiazko delitu-jokabideei lotutako arazo espezifikoek irtenbideak ematera bideratutako prestakuntza-programak eta -esku-hartzeak diseinatzean islatzen da.

Birgizartekotze horretarako bidea prestatzeak hainbat politika publiko uztartzea eskatzen du, baina gizartearen inplikazioa eta parte-hartzea ere ezinbestekoa da; horregatik, printzipio komunitarioa EAEko espetxe-ereduaren balioetako bat da.

Esku-hartze horiek bultzatutako aldaketa pertsonala posible da administrazio publikoen eta gizarte-erakundeen baterako ahaleginari eta lankidetzari esker; izan ere, herritar horien birgizartekotzean aktiboki parte hartzen dute, eta haien parte-hartzea funtsezkoa da gizarteratzeko, inklusiorako eta komunitate-eraldaketarako prozesuetan.

Espetxeen Lege Organiko Orokorrak berak 69.2 artikuluan aitortzen du herritarren eta presoak birgizartekotzeko lanetan diharduten erakunde edo elkarte publiko edo pribatuen lankidetzaz eta partaidetza hori, presoak erregimen arruntean eta irekian gizarteratzeko.

Bestalde, Espetxeen Erregelamenduaren 62. artikuluan erakunde eta elkarte publiko eta pribatuen lankidetzaz hitz egiten da, eta aipatzen da erakundeak nola egiaztatuko diren, esku hartzeko programak nola onartuko diren, espetxeetan erakunde eta entitate horietako langile eta boluntarioen sarrerak nola kudeatuko diren, eta jarraipenerako, ebaluaziorako eta abarretarako sistemak zeintzuk diren.

Beraz, lankidetzaz-programak gauzatzeko, Espetxe Administrazioak onartu egin behar ditu programa horiek.

Eskakizun hori beharrezkoa da bermatzeko hirugarren sektorearen parte-hartzeak benetan eta modu nabarmen, seguru eta efizientean osatuko duela espetxe-administrazioak egindako lana, ez dela elementu desitxuratzailerik edo erredundantea izango, eta zigortuentzat, gobernuz kanpoko elkarte eta erakundeetako langileentzat eta espetxeko langileentzat arriskuak prebenitzeko moduan egingo dela.

Euskal Autonomia Erkidegoan zigortuak birgizartekotzen eta horien gizarte-arretan laguntzeko sare komunitario bat dago, hirugarren sektoreko fundazioek eta elkarteek osatua. Sare horren helburua da zigortuek eta presoek eskubide osoko herritar gisa beren bizitza orientatzeko aukera izatea eta, espetxea utzi eta gero, komunitatean erabat integratu daitezela aktibo sozial gisa.

Ildo beretik, zigorrak baldintzapean etenda dauzkatenekin ere egiten dute lan, gizarteratzeko ibilbideak ezartze aldera; horrela, pertsona batzuek beren bizitza berregiteko aukera izan dezaten eta gure gizartearentzat aktibo bihurtu daitezela, kartzelako bizimoduak gizarteratzeko dakartzan ondorio kaltegarriak jasan gabe.

Bestalde, zigor-arloko legeriak eskubideez gabetzen duten beste zigor batzuk arautzen ditu, hala nola gizartearentzat lan egiteko zigorrak, segurtasun-neurri jakin batzuk, baita askatasunaz gabetzeko zigorren betearazpena etetea eta zigorrak ordezteak ere.

Hirugarren graduako barneratuekin, baldintzapean askatutakoekin, garatu beharreko programak eta lantegiak indartu behar direnez, eta zigorrak eta ordezeko neurriak betearazi eta horien jarraipena egin behar denez, beharrezkoa da lan hori babesteko duten kanpoko erakundeekin laguntza izatea. Testuinguru horretan, hirugarren sektoreko erakundeekiko lankidetzaz eta elkarlana bultzatu nahi da, baita erakundeok nolabaiteko laguntza ekonomikoa jasotzea ere.

Sare komunitario hori izatea duela 20 urte baino gehiago abiarazitako arrakasta-esperientzia bat da gure herrialdean, Euskal Autonomia Erkidegoan espetxe-eredua garatzeko programazioak bultzatu nahi duena, ikuspegi komunitarioaren forma oro zigor-legearekin gatazkan sartu diren pertsonen gizartekotze- eta birgizarteratze-politiken oinarria izan dadin.

Gizarte zibilaren konpromisoa eta, ildo horretan, hirugarren sektoreko erakundeekin ekimenak, beren konpromiso soziala dela eta, era profesionalean eta koordinatuan ari dira lanean Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeekin, eta Eusko Jaurlaritzarekin modu efiziente eta gardenean lankidetzaz aritu dira.

EAEko Espetxe Administrazioak 2022. urtean iragarri zuen lehen aldiz deialdi bat norgehiagoka-araubidean, deialdi honen antzeko hedadurarekin eta xedearekin. Deialdi horrek askatasunaz gabetuta dauden pertsonak birgizartekotzeko eta haiei gizarte-arreta emateko proiektu komunitarioak

rioekin lotutako jarduera jakin batzuetarako dirulaguntza ematen zuen, Agindu honetan xedatutako antzeko baldintzetan.

Hala ere, nahiz eta lortutako esperientziak agerian utzi duen funtsezkoa dela dirulaguntza emateko deialdia egiten jarraitzea, agerian jarri du, halaber, deialdian aldaketa batzuk egin behar direla; adibidez, finantzatu beharreko proiektuak berrantolatu egin behar dira, aurkeztutako proiektuak espetze-administrazioaren benetako premietara egokitzeko aukera izan behar da, eta balorazio-irizpideak diruz lagundu daitekeen proiektuaren eta proiektu bakoitzerako aurrekontu-zuzkidura bereziaren arabera arautu behar dira. Halaber, deialdi honek kontuan izan behar du proiektu berriak egin behar direla Gipuzkoako espetze berrirako (Zubieta), espetze hori diruz lagundu daitekeen aldian irekiko dela aurreikusten baita.

Laguntzak emateko administrazio-ebazpenen objektibotasuna bermatze aldera, agindu honetan ezarriko dira, zehaztasun guztiz, dirulaguntzak emateko irizpideak. Hauxe da aplikatu beharreko lege-esparrua: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, hura garatzen duen erregelamendua onartzen duena; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duena dirulaguntzen arloan, betiere aurrekoen kontrakoa esaten ez badu; eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko betekizunak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituenak.

Azkenik, adierazi behar da agindu honetan proposatutako dirulaguntzek ez dakartela estatu-laguntzarik; izan ere, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoaren arabera, estatu-laguntzaren kontzeptuari buruz Batzordeak egindako komunikazioaren arabera, estatu-laguntzei buruzko arauak laguntza-neurriaren onuraduna «enpresa» denean baino ez dira aplikatzen.

Agindu honen bidez iragarritako laguntzak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 2023rako egindako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude. Plan hori Eusko Jaurlaritzaren webgune instituzionalean argitaratuta dago: www.euskadi.eus. Laguntza horiek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 2024rako egingo duen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ere jasoko dira. Plan hori ere Eusko Jaurlaritzaren webgune instituzionalean argitaratuko da.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuateginari jarraikiz (testuategin hura azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz,

honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra. – Deialdiaren xedea.

Agindu honen xedea da aginduaren Eranskinean azaltzen diren oinarriak onartzea, eta nor-gehiagoka-araubidearen arabera emateko diren dirulaguntzen deialdia egitea, honako proiektu komunitario hauetarako: askatasunaz gabetzeko zigorra duten eta EAEko espetzeen mende dauden pertsonak birgizartekotzeko eta haiei gizarte-arreta emateko proiektuak, eta zigortutako

pertsonei espetxean, eta araubide irekian eta komunitarioan, zigor-betearazpenerako eta tratamendurako laguntza emateko proiektuak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetako laguntzak emateko, beharrezkoa da kreditu nahikoa eta egokia egotea Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko Aurrekontu Orokorretan, betiere Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikulua ondo ondo; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Nagusien kargutan egiteko diren gastu-espedienteen aurretiazko izapidetzea araupetu zen.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, interesdunak aukeko berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko (1) epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi (2) hilabeteko epean, agindua aipatu aldizkari ofizial horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honetan prozedurari buruz arautu gabe geratu diren alderdiei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko zaie.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 2a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRIAK

1. artikulua.– Helburua eta aplikazio-eremua.

Agindu honen xedea da oinarriak onartzea eta norgehiagoka-araubidearen arabera emateko diren dirulaguntzen deialdia egitea, honako proiektu komunitario hauetarako: askatasunaz gabetzeko zigorra duten eta EAEko espetxeen mende dauden pertsonak birgizartekotzeko eta haiei gizarte-arreta emateko proiektuak, eta zigortutako pertsonen espetxean, eta araubide irekian eta komunitarioan, zigor-betearazpenerako eta tratamendurako laguntza emateko proiektuak.

2. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuak.

Zehazki, agindu honen aplikazio-eremuak diruz lagundu daitezkeen proiektu mota hauek hartzen ditu:

a) Esku hartzeko proiektuak, espetxe-eremuan nahiz araubide irekian askatasunaz gabetuta dauden eta mendekotasun-arazoak (substantzia psikoaktiboekin edo gabe) dituzten pertsonen mendekotasuna gainditzeko, haiek tratatzeko, haien jarraipena egiteko eta haiek gizarteratzeko, eredu biopsikosoziala erabiliz.

b) Psikoterapian, psikologia- eta hezkuntza-arloetan eta gizarte- eta hezkuntza-arloetan esku hartzeko proiektuak, askatasunaz gabetuta dauden pertsonen arreta, tratamendu eta laguntza indibiduala eta/edo taldekoa emateko, bai espetxean bai araubide irekian; baita tratamendu-programa espezializatuak ere, bai tratamendu hori jasoko duen eta bereziki kaltebera den kolektiboa dela eta, bai jorratzen dituen delitu mota dela eta: genero-indarkeria, sexu-indarkeria, familia-indarkeria, indarkeriazko delituak, delitu ekonomikoak, diskriminazio-delituak eta gorroto-delituak, bide-segurtasunaren aurkako delituak, ingurumenaren aurkako delituak, animalien aurkako delituak, besteak beste.

c) Espetxean nahiz araubide irekian askatasunaz gabetuta dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak bultzatzeko proiektuak: orientazio-programak, prestakuntza-programak, enplegua sustatzeko programak, lanerako programak, bitartekaritza-programak, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideetan gizarte-laguntza emateko programak, etab., laguntza, aholkularitza edo prestazioen kudeaketarekin, Lanbideren eta Aukeraren eskaintza modu integratuean osatu dezaten.

d) Aisialdi hezigarriko jarduera soziokulturalen proiektuak, trebetasun pertsonalen eta sozialen garapena eta kulturarako sarbidea bultzatu eta zentroetan emandako denborari balioa eta erabilgarritasuna emango diotenak, eta haien gizartekotzea eta aldaketa pertsonaleko prozesua sustatuko dutenak. Esate baterako, ikusizko arteekin, arte plastikoekin eta eszenikoekin, eta ikus-entzunezkoekin lotutako ekimenak; lehiaketak, erakusketak, erakustaldiak eta azokak antolatzeko; ariketa fisikoa eta kirola egitea; irteera kulturalak eta naturan zeharreko ibilaldiak; aisialdiko hezkuntza eta abar.

e) Prozesu errestitutiboaren testuinguruan, erantzukizuna bere gain hartzen laguntzeko programak. Biktimei eragindako kalteaz eta galeraz jabetzen, bere gain hartzen eta konpontzen lagunduko duten ekimenak.

f) Askatasunaz gabetzeko zigorren ordezkotza zigorrek eta neurriak betearazten eta horien jarraipena egiten laguntzeko programak: segurtasun-neurriak, zigorrek eta gizartearentzako lanak egitea.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetan jasota dauden eta diruz lagundu daitezkeen proiektu guztiak finantzatzeko baliabide ekonomikoak bost milioi (5.000.000) euro dira guztira; horietatik bi milioi eta erdi (2.500.000) euro 2024ko ekitaldirako ordainketa-kredituari dagozkio, eta bi milioi eta erdi (2.500.000) euro 2025eko ekitaldirako konpromiso-kredituari; bi kredituak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontu orokorretan sartuta daude.

2.– Artikulu honetako 1. apartatuan aipatzen diren kredituak 2. artikuluan aipatzen diren proiektu moten artean banakatuko dira, era honetara:

| Proiektuak | 2024. urtea. 2024ko ordainketa-kreditua (euro) | 2025. urtea. 2025eko konpromiso-kreditua (euro) |
|--------------|------------------------------------------------|-------------------------------------------------|
| A proiektuak | 900.000 | 900.000 |
| B proiektuak | 600.000 | 600.000 |
| C proiektuak | 400.000 | 400.000 |
| D proiektuak | 150.000 | 150.000 |
| E proiektuak | 400.000 | 400.000 |
| F proiektuak | 50.000 | 50.000 |
| GUZTIRA | 2.500.000 euro | 2.500.000 euro |

3.– Nolanahi ere, proiektu bakoitzerako egindako eskaerei erantzungo zaie, artikulu honetan adierazitakoaren arabera aurrekontu-kreditua egon arte. Baina diruz lagundu daitezkeen proiektu modalitate jakin batean krediturik geldituz gero, diruz lagundu daitezkeen gainerako proiektuen eskaeretara bideratuko da, baldin eta dagokien gutxieneko puntuazioa gainditu arren, proiektu horretako aurrekontu-kreditua agortu delako laguntzarik eman ezin izan bazaie, eta proiektu komunitario horiek funtsezkoak badira espetxeen premiak betetzeko. Horretarako, Balorazio Batzordeak proposamen bat egingo du. Proposamen horretan, premia hori jasoko du behar bezala justifikatuta.

4. artikulua.– Proiektuen betekizunak.

1.– Aurkeztutako proiektuak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Agindu honen 2. artikuluan jasotako proiektu modalitateren batekoak izatea (hau da, A, B, C, D, E edo F).

b) Espetxeetan hasten diren proiektuek aldeztu aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxe Administrazioaren baimena izatea edo, bestela, deialdi hau ebatzi aurretik lortzea. Horretarako, proiektua dagokion espetxean gauzatzeko baimena eskatu beharko dute erakundeek, Justiziako zuzendariaren 3/2021 Instrukzioarekin bat etorritik, betiere Agindu honetan araututako eskaera-aldia amaitu baino lehen. Justiziako zuzendariaren 3/2021 Instrukzio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

c) Laguntza integraleko metodologia erabiltzea.

d) 2024ko eta 2025eko ekitaldien artean gauzatzea. Proiektua 2024an hasi beharko da eta 2024an bakarrik gauzatu, edo 2024. eta 2025. urteetan gauzatu ahal izango da. 2025ean hasten diren proiektuak ez dira diruz lagunduko.

2.– Betekizunak proiektuak gauzatzen hasi aurretik eta diruz lagundu daitekeen aldi osoan bete beharko dira.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitekeen proiektuaren eta gastuen aurrekontua.

1.– Finantzatzea eskatzen den proiektu bakoitzaren eskaerarekin batera, diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu bat aurkeztuko da, eskuragarri egongo den aurrekontu-ereduaren arabera. Aurrekontu-eredu hori hemendik jaitsi ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

Proiektua gauzatzeko eskatu diren eta/edo lortu diren diru-sarrera guztiak identifikatu beharko dira.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira, deialdi honetan ezarritako ondoretarako, diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak eta behar-beharrezkoak direnak, baldin eta 2024. eta 2025. urteetan egiten badira.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostuak ez du, inola ere, merkatuko balioa gaindituko.

Proiektu bakoitzean diruz lagundu daitezkeen gastuak honela banakatuko dira: zuzeneko gastuak eta zeharkako gastuak.

2.1.– Zuzeneko gastutzat hartuko dira diruz laguntzen den jarduera edo proiektua garatzetik berariaz eratorzen direnak. Zehazki, halakotzat hartuko dira honako hauek:

– Diruz laguntzen den esku-hartzea gauzatzeko, erakundeak kontratatutako langileen gastuak zuzeneko gastutzat hartuko dira, nolnahi ere. Erakundeko langileek egindako jardueren kasuan, baldin eta beste eginkizun eta lan batzuk egiten badituzte diruz lagundutako jardueraren ondoriozko gainera, dagozkien lan guztien aldean jarduera horrek betetzen duen zati proportzionala besterik ezin izango da egotzi zuzeneko kostu gisa. Aitzitik, ez da zuzeneko gastutzat hartuko (baizik eta zeharkako gastua izango da) erakundeko staffaren edo teknikari orokorren edo egiturazko langileen (adibidez, administrariak, kontulariak, aholkulariak, garbiketako langileak) zati proportzionala, baldin eta diruz lagundutako jardueran bakarrik aritzen ez badira.

– Proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren konponketa-lanak edo mantentze-lanak. Diruz lagundu daitekeen gehieneko muga 6.000 euro izango da. Aitzitik, ez da diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko proiektuak abian jartzeko hornikuntza edo obrak egitea.

– Diruz lagundu daitezkeen lokalen alokairu-kostuak berariaz eta eksklusiboki diruz lagundutako jarduera gauzatzeko erabiltzen diren lokalenak izango dira. Erakundeak jarduerak edo proiektuak egiteko, lokal bat alokairu-erregimenean badu (hau da, lokala erakundearen jabetzakoa ez bada edo lagapen-erregimenekoa ez bada, edo alokatua izanda ere erakunde onuraduneko kideren batena bada) eta diruz lagundutako proiektua edo jarduera lokal horretan gauzatu nahi bada, diruz lagundutako proiektuan erabiltzen den zati proportzionalak bakarrik izango du ondorioa, betiere azaleraren, maiztasunaren eta denborazkotasunaren irizpideak kontuan hartuta. Horretarako, guztizko faktura eta erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko dira. Ziurtagiri horretan, banakatura adieraziko da proiekturako erabili den ehunekoa eta beste proiektu batzuetarako erabili dena.

2.2.– Honako hauek hartuko dira zeharkakotzat: kostu aldakorrak, onuradunak egindako zenbait jarduerari egozten zaizkienak, edo, bestela, egiturazko kostuak, diruz laguntzen den jarduerari zuzenean egotzi ezin zaizkionak baina beharrezkoak direnak hura gauzatzeko.

Ezin izango da emandako laguntzaren % 15 baino gehiago bideratu zeharkako kostuak ordaintzera.

Zeharkako kostuak diruz lagundutako jarduerari egotzi beharko dizkio onuradunak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera arrazoiz dagokion zatian, eta betiere kostu horiek jarduera benetan gauzatzen den aldiari badagozkio.

Aurrekoa oinarri hartuta, honako hauek hartuko dira, besteak beste, zeharkako kostutzat:

– Proiektuarekin zeharkako lotura duten langileen gastuak: erakundeko administrazio-langileak edo staffa edo teknikari orokorrak (adibidez, administrariak, kontulariak, aholkulariak, garbiketako langileak eta abar), baldin eta diruz lagundutako jardueran bakarrik aritzen ez badira.

– Zerbitzu profesional independenteen kostuak, proiektua gauzatzeak sortutakoak: lan-, zerga- eta administrazio-arloko aholkularitza edo kudeaketa.

– Funtzionamendu- eta egitura-gastuak: egoitzaren bulegoa alokatzea, hornidurak.

– Material administratiboaren gastuak.

– Finantza-zerbitzuei egindako ordainketetatik eratorritako gastuak.

Erakundearen bulego-zerbitzu orokorretara bideratutako lokalak, biltegiak, langileen prestakuntza, egoitzak eta abar zeharkako gastutzat hartuko dira beti.

3.– Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko higiezinak edo ondasun inbentariagarriak erosteko gastuak, ezta alokairu-gastuak ere, baldin eta diruz lagundutako jarduera garatzeko errentan hartutako higiezinaren titulartasuna, osorik edo zati batean, erakunde onuraduneko kide batena edo batzuen bada; protokolozko arretak; ezta bazkideentzako, langileentzako edo boluntarioentzako ekitaldi, aurkezpen edo ospakizunetako janari- eta edari-gastuak ere.

4.– Proiektua gauzatzeko aurrekontu banakatuan jasota dauden gastuak diruz laguntzekoak izango dira, baldin eta dirulaguntza jasotzeko betekizunak betetzen badituzte, artikulua honetan ezarritakoaren arabera.

5.– BEZaren zenbatekoa ez da diruz lagundu daitekeen gastua izango, baldin eta gero berreskuratu edo konpentsatu badaiteke. Horrelakoetan, frogagirien zerga-oinarriaren zenbatekoa hartuko da gastutzat.

6.– Proiekturako eskaeran erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan artikulua honetan diruz lagundu ezin diren gastutzat hartu diren gastuak jasotzen badira, edo, gastu osoa egokia ez dela edo bete behar den premiarekin bat ez badator, Balorazio Batzordeak kendu edo zuzendu egingo ditu, diruz lagundu daitekeen aurrekontua zehazteko asmoz; eta, hain zuzen ere, hori izango da dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarria, betiere Agindu honen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.– Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko izango dituen gastuen kontratazioari dagokionez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu, gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu erakunde onuradunak, zerbitzua emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, haien ezaugarri bereziak direla

eta, merkatuan ez badago aski erakunde haiek egin, eman edo hornitzeko, edo salbu eta gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

6. artikulua.– Azpikontratazioa.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera, bidezkoa da azpikontratazioa egitea, alegia, beste batzuekin hitzartzea dirulaguntzaren objektu den jarduera osorik edo horren zati bat gauzatzea.

2.– Diruz lagunduko diren proiektuetako jarduerak azpikontratatu ahal izango dira, baina gehiezin ere diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50eraino eta soilik irabazi-asmorik gabeko erakundeekin. Inola ere ezingo dira dirulaguntzaren kostua handiagotzen duten jarduerak azpikontratatu, jardueraren edukiari balio erantsirik gehitzen ez badiote.

3.– Hirugarrenekin azpikontrataturako jarduerak dirulaguntzaren % 20tik gora hartzen badu eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Kontratua idazki bidez egitea.

b) Dirulaguntza ematen duen erakundeak aldeztu aurretik kontratua egiteko baimena ematea.

4.– Alabaina, erakunde onuradunak ezin izango du honako hauekin itundu diruz lagundutako jarduerak osorik edo partzialki gauzatzea:

a) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutako debekuetako bat duten pertsonak edo erakundeak.

b) Kontratuaren objektua den jarduera gauzatzeko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo erakundeak.

c) Bitartekariak edo aholkulariak, baldin eta horiei ordaindu beharrekoa eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin gisa definitzen bada, salbu eta ordainketa justifikatuta badago egindako lanak edo emandako zerbitzuek merkatuan daukaten balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunarekin lotutako pertsonak edo erakundeak, salbu eta organo emailearen aldeztu aurreko berariazko baimena lortzen bada eta diruz lagundu daitezkeen zenbatekoak ez badu gainditzen lotutako erakundeak egindako kostua. Kostua justifikazioan egiaztatu beharko da, onuradunaren gastuak egiaztatzeke ezarritako baldintza berberetan.

e) Deialdi eta proiektu berean laguntza edo dirulaguntza eskatu eta lortu ez duten pertsonak edo erakundeak, eskakizunak betetzen ez dituztelako edo behar besteko balorazioa lortu ez dutelako.

7. artikulua.– Dirulaguntza eskatzeko betekizunak eta betekizun horiek egiaztatzeke modua.

1.– Dirulaguntzak eskatu eta haien onuradun izateke, erakundeek betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Irabazi-asmorik gabeko erakundeak izatea, legez ezarritako moduan eratuak eta, izaera juridikoa aintzat hartuta, dagokien erregistroan inskribatuak. Gainera, hirugarren sektore sozialeko erakundeak direnez, EAEko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda publikoan erregistratuta egongo dira. Errolda hori martxoaren 7ko 33/2023 Dekretuan jasotzen da, zeinaren bidez EAEko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda sortzen baita.

b) Egoitza eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

c) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako betekizunak betetzea eta artikulua horretan xedatutako debekuen eraginpean ez egotea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.5 artikuluan laguntzak edo dirulaguntzak emateko ezarritako debekuren baten eraginpean ez egotea (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua).

e) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean edukitzea.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.5 artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua) onuradun izateko ezartzen diren debekuetatik bat ere ez dutela egiaztatzeko, erakundearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da; horretarako, eskaera-inprimakian dagoen erantzukizunpeko adierazpena bete ahal izango da. Inprimakia hemendik jaitsi ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

Justizia Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du, erakundeak horretarako baimena ukatzen ez badio, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 50.3 artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Erakunde eskatzaileak berariaz adierazten badu egiaztatze horren aurka dagoela, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko, onuradunak Dirulaguntzen Legearen Erregelamendu Orokorra (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendua) 22. artikuluan arautzen dituen administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko dizkio deialdiaren organo kudeatzaileari.

8. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Eskabideak bide elektronikoz izapidetuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa. Hor daude eskuragarri bide elektronikoz izapidetzeko azalpenak, eranskinak eta inprimakiak. Hauxe da helbidea:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: Gaztelaniaz, <https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos> Euskaraz, <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Ordezkarri baten bidez ere egin ahal izango dira izapide elektronikoa; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatu beharko da ordezkaritza, honako helbide hauen bidez: Gaztelaniaz, <https://www.euskadi.eus/representantes> Euskaraz, <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

2.– Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak eta jakinarazpenak «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu>

9. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Justizia Zuzendaritzari dagokio deialdi hau kudeatzea.

10. artikulua.– Eskabidea.

1.– Eskabideetan, Agindu honen 2. artikuluan zehaztutako proiektu modalitatearen bat garatzen duen jarduera-proiektu bat jaso beharko da. Proiektu bat baino gehiago garatzen dituzten erakundeek eskabide bat aurkeztu beharko dute proiektu bakoitzeko.

Era berean, modalitate berean kokatu daitezkeen proiektu desberdinak garatzen dituzten erakundeek eskabide bat aurkeztu beharko dute proiektu bakoitzeko.

2.– Erakundeek, deialdi honen esparruan, gehienez ere lau eskabide (4) aurkeztu ahal izango dituzte, hau da, diruz lagundu daitezkeen proiektu guztien lau (4) eskabide guztira. Erakunderen batek eskabide gehiago aurkezten baditu, organo kudeatzaileak alderdi interesdunari eskatuko dio gehieneko kopurua gainditzen duten eskabideetatik berak hautatzen dituenak ken ditzala, eta, horretarako, hamar (10) eguneko epea emango dio. Esandakoa egiten ez badu, eskabideak ez aurkeztutzat hartuko dira eta aurkeztutako azken eskabideak aztertu edo balioetsiko dira. Hau da, aurkezten diren unea hartuko da kontuan, eta lehen lau (4) eskabideak hartuko dira aurkeztutzat, gainerakoak, aldiz, baztertu egingo dira. Erregistro elektronikoak automatikoki ematen du aurkezpen-agiria, hau da, eskabidea aurkeztu dela egiaztatzen duen agiria. Bertan, eskabidea aurkeztu den eguna eta ordua jasotzen dira, baita sarreraren erregistro-zenbakia ere.

3.– Erakundeek ezingo dute aurkeztu dirulaguntzen proiektu modalitate bakoitzerako diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoa baino zenbateko handiagoko dirulaguntza-eskabiderik, betiere Agindu honen 19.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta, hala badagokio, Agindu honen 5.6 artikuluan xedatutakoa aplikatu ondoren, gehieneko zenbateko horiek gainditzen dituzten eskabideak ezetsi egingo dira, ezesteko egintza bera beste izapiderik gabe.

4.– Erakundeek eskabidea hilabeteko (1) epean aurkeztu beharko dute, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak helbide honetan eskuragarri egongo den eta hortik jaitsi ahal izango den ereduaren arabekoak izango dira:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

5.– Erakundeek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta dokumentazioa. Halaber, prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutako moduan.

11.– Eskabideak diruz lagundu daitezkeen proiektu modalitate desberdinen artean lekualdatzea.

1.– Laguntzak kudeatzen dituen organoaren iritziz aurkeztutako eskabidea ez badator bat aurkeztu den proiektu modalitatearen xedearekin, eta diruz lagundu daitezkeen beste proiektu modalitate batera (Agindu honetan xedatutako beste batera) hobeto egokitzen bada, eskabidea egokiagotzat hartzen duen laguntza-proiektuaren motan sartzea erabaki ahal izango du laguntzak emateko espedientea ebatzi aurretik.

2.– Erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio aurreko paragrafoan aipatutako erabakia, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan hamar (10) eguneko epean. Epe hori igaro bada, eta erakunde eskatzaileak aurka egin ez badu, proiektua beste modalitate batera aldatzeko erabakia onartzen dela ulertuko da.

12. artikulua.– Dokumentazioa.

1.– Eskabidearekin batera honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Eratze-eskritura, estatutuak eta erakundea, izaera juridikoa kontuan hartuta, dagokion erre-gistroan inskribatuta dagoelako egiaztatzea.

b) Diruz laguntzea nahi den proiektuaren gaineko memoria teknikoa, memoria egiteko eredu normalizatuaren arabera («Proiektuaren memoria»). Eredu hori hemen egongo da eskuragarri eta hortik jaitsi ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

2. artikulua araber, eskabidea zer proiektu modalitatetan sartzen den zehaztu beharko da (hau da, A, B, C, D, E edo F). Erakundeek argi eta zehaztasunez azaldu beharko dute egingo den jarduera, zigortuekin egingo den lana, proiektuaren helburu zehatzak eta erabiliko den metodologia.

c) Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua, eta proiektua gauzatzeko eragindako kostua, partiden eta urteko gauzate-lerroaren arabera banakatuta; beste finantza-iturriak izanez gero, zehaztu egin beharko da, eta halakorik ez badago, eredu normalizatuaren arabera adierazi beharko da ez duela ez baliabide propiorik ez kanporik proiektua finantzatzeko. Eredu normalizatua («Aurre-kontu banakatua») hemen egongo da eskuragarri eta hortik jaitsi ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

2.– Eskabideak baloratzeko, aurreko paragrafoan aipatutako dokumentuak bakar-bakarrik hartuko dira kontuan.

Dena dela, erakundeek dokumentu osagarriak aurkeztu ahal izango dituzte, proiektua hobeto baloratzen lagunduko dutela uste badute.

3.– Dirulaguntzaren organo kudeatzaileak espedientearen behar bezala osatzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak eta azalpenak eska diezazkioke erakunde eskatzaileari. Gainera, eskatzaileak emandako datuak egiaztatu ahal izango ditu.

13. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

Organo kudeatzaileak egiaztatzen badu erakunde eskatzailearen batek aurkeztutako dokumentazioan zerbait falta dela edo aurreko artikuluetan adierazitako betekizunak betetzen ez direla, eskatuko dio hamar (10) eguneko epean hutsa zuzen dezala edo dagozkion agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko dio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, aldeztatik ebatzpena emango da, zirkunstantzia horren berri emateko, eta, bertan, jazoetako egitateak eta aplikatu daitezkeen arauak zehaztuko dira.

14. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Balorazio Batzorde bat eratuko da, zeinak aurkeztutako proiektuei buruzko balorazioa eta dirulaguntzak emateko proposamena egingo baititu.

2.– Honako hauek osatuko dute Balorazio Batzordea:

a) Presidente titularra: Pablo Martinez Larburu. Ordezko presidentea: Beatriz Agirre Alberdi.

b) Batzordekideak:

– Benito Aguirre Gonzalez (Ordezkoa: Juan Carlos Calzada).

– Maria Vicenta Alonso De La Cruz (Ordezkoa: Jesus Maria Guerrero Guecho).

– Alfredo Gómez López (Ordezkoa: Héctor Valladares Narganes).

– Aukerak Gizarteratzeko Euskal Agentzia; ordezkaria: Itziar Etxebarria.

c) Idazkaria: Jon Cortazar Uribasterra (Ordezkoa: Javier Prado Ayuso).

15. artikulua.– Txostenak.

1.– Organo kudeatzaileak ofizioz eskatuko die kasuan kasuko espetxeari edo espetxeei deialdian aurkeztutako programen interesari, beharrari, esperientziari eta bideragarritasunari buruzko txostena, espetxeetako helburu estrategikoei dagokienez, baita jada ezarrita dauden beste proiektu batzuekiko osagarritasunari eta bikoiztasunik ezari buruzko txostena ere, eta, nolahi ere, proiektua espetxean ezartzeko alde aurreko baimenari buruzko txostena, diruz lagundu daitezkeen laguntzak eman diren edo ez kontuan izan gabe. Aurkeztutako proiektuei buruzko balio-iritziak egingo dira txosten horietan, eta helburu hau izango dute: instrukzioaren berezko jarduketekin batera, elementu osagarriak ematea Balorazio Batzordeak erabaki hoberena har dezan laguntzeko. Elementu horiek, nolahi ere, aukerakoak eta ez-lotesleak izango dira.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan dagokien baimenarekin funtzionatzen ari ez diren proiektu berriak baldin badira, proiektuaren baimena ofizioz izapidetuko da, espetxe-erregelamenduaren 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

16. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen aurrekontua zehaztea eta eskabidea birformulatzea.

1.– Erakunde interesdunek aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren, eta agindu hau ez ezik, espetxe-administrazioak dituen aukerak eta benetako premiak ere kontuan hartuta, Balorazio Batzordearen ustez aurkeztutako eskabidearen interesa partziala bada, edo partida batzuk diruz lagundu daitezkeen gastuekin bat etortzen ez direla edo proiektuaren helburua betetzeko beharrezkoak ez direla uste badu, aurkeztutako aurrekontua birformulatu eta egokitu ahal izango du; horretarako, diruz lagundu daitezkeen aurrekontu-proposamen bat egingo du modu orokorrean. Proposamen horretan zehaztuko du proiektuaren edo gastuaren zer zati hartzen den egokitzat eta diruz laguntzeko modukotzat, proiektu modalitate bereko beste proiektu batzuk ere izatea alde batera utzi gabe.

Eskabidea (proiektuena eta horien aurrekontuena) honako alderdi hauek kontuan hartuta egokitu edo birformula daiteke: jarduketeta-aldia, non garatuko den, intentsitatea, partaide kopurua edo haien profila, esku hartzeko aldizkakotasuna eta/edo maiztasuna eta beharrezkoak diren gastu motak, besteak beste.

2.– Diruz lagundu daitekeen aurrekontu-proposamena elektronikoki jakinaraziko zaie erakundeei Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren «Nire karpeta» atalean, proposamena onar dezan edo baja birformula dezan jakinarazten denetik bost (5) eguneko gehieneko epean. Erakundeak epe horretan ezer adierazten ez badu, egokitze edo birformulatzeko proposamena ez dela onartu ulertuko da eta hasierako eskabideari eutsiko zaio baldintza guztietan.

17. artikulua.– Eskabideak baloratzea.

Aurkeztutako eskabide bakoitza alderdi teknikoen eta aurrekontu-alderdien arabera baloratuko du modu independentean Balorazio Batzordeak. Agindu honetako betekizunak betetzen dituen eta agindu honetara egokitzen den aztertuko du, baita eskabide bakoitzaren egokitasuna ere; horretarako, dagokion puntuazioa emango die ondorengo artikuluan jasotzen diren balorazio-irizpideen arabera.

Diruz lagundu daitekeen proiektuaren modalitatea edozein dela ere (hau da, A, B, C, D, E edo F), eskabideek gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzte (guztira 100 izan litezke), edozein dirulaguntza jaso ahal izateko.

60 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskabideei ezezkoa emango zaie.

Nolanahi ere, espedientean jaso beharko dira irizpide bakoitza aplikatzean baloratu diren alderdi zehatzak, baita bakoitzari emandako puntuazioa ere.

18. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuetako jarduerak baloratzeko, alderdi hauek ebaluatuko dira:

a) Erakundeak eta proiektuak espetxeen arloko esku-hartzearen eremuan duen ibilbide soziala: 10 puntu.

b) Proiektua EAEko espetxe-administrazioaren tratamendu-arloko esku-hartzearen lehentasuneko ildoetan txertatzea: 25 puntu.

c) Proiektuaren jardueraren lurralde-irismena (Gipuzkoa-Zubietako espetxe berrian egingo diren jarduketan aurreikuspena barne): 15 puntu.

d) Proiektuak espetxeetan daudenengan izango duen garrantzia eta inpaktua: 10 puntu.

e) Kolektibo bereziki kaltebera bati edo batzuei arreta espezifikoa ematea: 5 puntu.

f) Proiektuaren edukia eta haren diseinuaren kalitate teknikoa: 5 puntu.

g) Proiektuak genero-ikuspegia barne hartzearekin lotutako alderdiak ditu: 5 puntu.

h) Erabilitako ikuspegi metodologikoaren baliozkotzea: 2,5 puntu.

i) Garatu beharreko jardueren plangintza zehaztea eta egokitzea: 5 puntu.

j) Proiektuaren berrikuntza sozialaren maila: 5 puntu.

k) Giza baliabideak eta baliabide materialak proiektuaren garapenera egokitzea: 5 puntu.

l) Proiektuaren aurrekontu-oreka; diru-sarrerak, gastuak, baterako finantzaketa: 2,5 puntu.

m) Proiektua espetxeekin koordinatzearen kalitatea eta hartzaileekin esku hartzen duten beste baliabide komunitario batzuekin sarean lan egitea: 5 puntu.

19. artikulua.– Balorazio Batzordeak egindako ebazpen-proposamena eta laguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1.– Aurkeztutako dirulaguntza-eskabide guztiak Balorazio Batzordeak aztertu eta diruz lagundu daitezkeen aurrekontuak zehaztu ondoren (16. artikuluan adierazitako egokitzeko edo birformulatzeko ahalmena erabiliz, hala badagokio), Batzordeak ebazpen-proposamen bat egingo dio Justiziako zuzendariari. Proposamen horretan, deialdiko proiektu mota bakoitzeko (2. artikuluan aipatu direnak) aurkeztutako eskabideen zerrenda jasoko da, eta deialdiaren betekizunak betetzen dituztenak eta betetzen ez dituztenak bereiziko dira.

Proiektu-zerrenda bakoitzak, alde batetik, deialdi honetako betekizunak betetzen dituen eskabide bakoitzari eman beharreko laguntzaren hautaketari eta zenbatekoari buruzko proposamena jasoko du, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta, bestetik, deialdiaren betekizunak betetzen ez dituzten eskabideak ezesteko proposamena, kasu bakoitzean ezetzaren arrazoia adierazita.

2.– Proiektu bakoitzerako aurreikusitako aurrekontu-kreditua nahikoa bada, deialdiaren betekizunak betetzen dituen proiektu mota horretarako aurkeztutako eskabideen kopurua kontuan hartuta, Batzordeak proposatuko du eskatutako zenbatekoa ematea guztiei edo, bestela, Agindu honen 16. artikuluan adierazitako egokitze- edo birformulazio-ahalmenaren arabera dagokion zenbatekoa esleitzea.

3.– Aitzitik, erabakitzen bada proiektu mota jakin baten aurrekontu-kreditua nahikoa ez dela proiektuari buruz egindako eskabide guztiei erantzuteko, Balorazio Batzordeak eskabideei laguntzak emateko proposamena egingo du, eskabideak puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, harik eta proiektu horretarako jarritako zenbateko osoa agortu arte. Era berean, agindu honetan onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzen dutelako erantzun ezin diren eskabideak ezetsi egingo dira.

4.– Eskabide bati eman ahal izango zaion dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, banaka hartuta, honako hau izango da, diruz lagundu daitezkeen proiektu modalitate bakoitzaren arabera:

| Proiektuak | Bakar-bakarrik 2024. urtean gauzatu beharrekoak | 2024. eta 2025. urteetan gauzatu beharrekoak. |
|--------------|-------------------------------------------------|-----------------------------------------------|
| A proiektuak | 250.000 | 500.000 |
| B proiektuak | 100.000 | 200.000 |
| C proiektuak | 75.000 | 150.000 |
| D proiektuak | 60.000 | 120.000 |
| E proiektuak | 215.000 | 430.000 |
| F proiektuak | 15.000 | 30.000 |

5.– Gainera, deialdi honen esparruan erakunde onuradun bakar bati eman beharreko gehieneko zenbatekoa (hau da, aurkeztu dituen eskabide guztiak kontuan hartuta, diruz lagundu daitezkeen proiektua edozein dela ere) bostehun mila (500.000) euro izango da.

20. artikulua.– Ebazpena.

1.– Balorazio Batzordearen balorazio-proposamena ikusita, eskatutako dirulaguntzak emateko edo ez emateko ebazpenak emango ditu Justiziako zuzendariak, baita, Agindu honen 2. artikuluan azaltzen den proiektu modalitate bakoitzari dagokionez, urte bakoitzean emango diren dirulagun-

tzen zenbatekoak ere. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, alde batera utzi gabe erakunde interesdunei banan-banan jakinarazpen elektronikoa egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu>

2.– Dirulaguntzak emateko edo ez emateko ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea bost (5) hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe horretan ez bada berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi, eskabideak ezetsizat jo ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.9 artikuluan ezarritakoaren arabera (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

3.– Ebazpen horrek administrazioarekiko bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Justiziako sailburuordeari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

4.– Dirulaguntzak eta laguntzak emateko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzengatik hasi eta artean izapidetzen ari direnak.

21. artikulua.– Onarpena.

1.– Erakunde onuradunek dirulaguntza onartzeak esan nahi du onartu egiten dituztela agindu honetan ezarritako arau guztiak, bai eta honako hauetan ezarritako bermeak eta diru-itzulketen eta zehapenen erregimena ere: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileek bete beharreko betekizunak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

2.– Laguntza onartu egin dela ulertuko da, laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera bost (5) egun igaro ondoren onuradunak besterik adierazi ez badu.

22. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte. Halaber, erakunde onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Dirulaguntzaren xede izan den proiektu zehatza egiteko erabili beharko dute.

b) Dirulaguntzaren organo kudeatzaileari jakinaraztea, baldin eta dirulaguntza jasotzeko beharrezkoak diren betekizunak eta baldintzak (osorik edo zati batean) betetzea edo dirulaguntzaren xede den proiektua gauzatzea ezinezkoa egiten duen gerora sortutako gorabeheraren bat gertatzen bada.

c) Dirulaguntzaren organo kudeatzaileari jakinaraztea proiektuak gauzatzeko aldiari diruz lagundutako proiektuak finantzatzeko emandako edozein dirulaguntza edo laguntza eman dietela edo ukatu dietela, horren berri izan bezain laster.

d) Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, dirulaguntzen zertarakoa fiskalizatzeko funtzioak betez, eskatzen dieten informazio guztia ematea.

e) Dirulaguntza eman eta onartu ondoren argitaratzen diren proiektu, iragarki-kartel, argazki eta gainerako idatzizko eta soinu-zuko materialen aleetan beren-beregi adieraztea Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso dela Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunari buruzko eskuliburua onartzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan ezarritakoa bete beharko da. Informazioa eta eskaerak honako webgune honetan daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/identidad_corporativa/eu_5611/identidad_corporativa.html

23. artikulua.– Ordainketa.

1.– Dirulaguntzaren ordainketa-erregimena honako hau izango da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.11 artikuluan ezarritakoaren arabera:

1.1.– Diruz lagundutako proiektua 2024. urtean soilik gauzatzekoa bada:

a) Dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko hirurogeita hamabost (% 75) aurretiaz ordainduko da, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazita eta onartzeko epea igaro ondoren.

b) Gainerako ehuneko hogeita bosta (% 25) 2025eko urtarrilaren 15a baino lehen ordainduko da, 24. artikuluan aipatutako dokumentuak Justizia Zuzendaritzan aurkeztu ondoren.

1.2.– Diruz lagundutako proiektua 2024. eta 2025. urteetan gauzatzekoa bada:

2024. urteari dagokionez:

a) 2024. urteari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko hirurogeita hamabost (% 75) aurretiaz ordainduko da, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ondoren.

b) 2024. urteari dagokion dirulaguntzaren gainerako ehuneko hogeita bosta (% 25) 2025eko urtarrilaren 15a baino lehen ordainduko da, 24. artikuluan aipatutako dokumentuak Justizia Zuzendaritzan aurkeztu ondoren.

2025. urteari dagokionez:

a) 2025. urteari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko hirurogeita hamabost (% 75) aurretiaz ordainduko da, 2024an egindakoaren justifikazio teknikoa eta ekonomikoa onartu ondoren. Justifikazio hori 2025eko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da.

b) 2025. urteari dagokion dirulaguntzaren gainerako ehuneko hogeita bosta (% 25) 2026ko urtarrilaren 15a baino lehen ordainduko da, 24. artikuluan aipatutako dokumentuak Justizia Zuzendaritzan aurkeztu ondoren.

2.– Hasieran onartutako banaketa aldatzeko, dagokion urterokoen doikuntza izapidetu beharko da gastu-espeditentean.

3.– Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, osorik eman daitezke laguntza ematearen aldeko ebazpena jakinarazi baino lehen amaituta dauden jardueri dagozkien dirulaguntzak, ordainketa bakarraren bidez, baldin eta erakundeak osorik justifikatu badu dirulaguntzaren xedea, aurreko paragrafoan adierazitako justifikatzeko agiriak aurkeztuta.

4.– Ez da ordainketarik egingo, onuradunak ez baditu egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo zorduna bada itzulketa bidezkoa dela adierazteko ebazpen bidez.

5.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren hirugarrenen erregistroan egon beharko du erregistratuta.

Erakundea ez badago erregistratuta, edo Ogasun eta Ekonomia Sailaren Hirugarrenen Erregistroan jasota dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, modu elektronikoa egin ahal izango du, egoitza elektronikoa ere eskuragarri dagoen zerbitzuaren bitartez, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

6.– Hala badagokio, aintzat hartuko da abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako berme-araubidea (698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, erregimena eta betebeharrak ezartzen dituen).

Ordainketa aurreratuen zenbatekoa 180.303,63 eurotik gorakoa bada, dirulaguntzaren erakunde onuradunak, dagokion ordainketa jaso aurretik, aurreratutako zenbatekoari dagokion bermea, abala edo fidantza eratu izanaren frogagiria aurkeztu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintzan.

24. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta justifikatzeko dokumentazioa.

1.– Erakunde onuradunek organo kudeatzaileari justifikatu behar diote dirulaguntza jasotzeko beharrezkoak diren betekizunak betetzen dituztela, baita dirulaguntzaren xede den proiektua burutu izana ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, 2025eko urtarrilaren 15a eta 2026ko urtarrilaren 15a baino lehen, honako informazio hau biltzen duen justifikazio-kontu baten bidez:

a) Justifikazio-memoria teknikoa, zeinak urteko ekitaldi bakoitzean egindako jarduera jasoko baitu. Memoria hori eskuragarri egongo da eta hemendik jaitsi ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

Ahal izanez gero, diruz lagundutako jarduera gauzatu dela ziurtatzen duten argazkiak edota dokumentu grafikoak aurkeztuko dira memoriarekin batera, eta, hala dagokionean, argitaratutako programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako idatzizko eta soinu-zko materialen aleak.

b) Justifikazio-memoria ekonomikoa, zeinak jarduerak ekitaldi bakoitzean izandako gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasoko baitu, banakatuta eta sailkatuta, justifikazio-kontuaren ereduaren arabera. Eredu hori helbide honetatik jaitsi daiteke:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

Inprimakian, honako hauek adierazi behar dira, gutxienez:

(i) Justifikatzen den aldian emandako dirulaguntzaren kontura diruz lagundutako proiektua gauzatzeko egin diren gastuak eta inbertsioak justifikatzen dituzten dokumentuen zerrenda zenbakitua.

Gastu bakoitza zer helbururekin egin den azalduko da labur-labur eta gastuon dokumentuak aurkeztuko dira, datu hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data. Faktura edo gastuen dokumentu osoa ez bazaio egozten emandako dirulaguntzari, zenbateko horretatik zenbat egozten den zehaztuko da.

(ii) Erakunde onuradunak, diruz lagundu den proiekturako, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako bestelako finantzaketa edo dirulaguntzen zenbateko eta jatorrien zerrenda zehaztua, baldin eta aurretik horien berri ez bazitzaion eman dirulaguntzaren organo kudeatzaileari.

c) Emandako dirulaguntzari egotzi ahal zaizkion fakturak eta ordainagiriak (proiektua egiten duen eta dirulaguntzaren onuraduna denaren izenean jaulkiak), dirulaguntzaren zenbatekorainokoak gehienez. Fakturak eta ordainagiriak multzo sailkatuetan eta formatu digitalizatuan aurkeztu beharko dira, b) letran aipatu diren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatuaren ordena berean (gastuen kapitulu eta lehenatasun berak), organo kudeatzaileak gastua eta berau justifikatzen duten dokumentuak aldi berean aztertu ahal izateko. Justifikazioa ordena horri jarraitu gabe aurkezten bada, organo kudeatzaileak justifikazioa konpondu edo osatu dezala eskatu ahal izango dio onuradunari, eta hori egiteko hamar (10) eguneko epea emango dio.

2.– Proiektua gauzatu izana justifikatzeko agiriak bitarteko elektronikoak erabilia aurkeztuko dira, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Gainera, Espetxe Administrazioak diruz lagundutako jarduerari dagokion jarraipena egiteko, dirulaguntzaren organo kudeatzaileak erakunde onuradunei eskatu ahal izango die justifikazio-memoria tekniko osagarri bat aurkez dezatela 2024ko uztailaren 15a eta 2025eko uztailaren 15a baino lehen, Memoria horretan, sei hilekoan egindako jarduera jasoko da eta helbide honetan egongo da eskuragarri eta hortik jaitsi ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0040813>

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0040813>

4.– Dirulaguntzaren organo kudeatzaileak ausaz aukeratutako gutxienez bost erakunde onuradun bisitatuko ditu, justifikazio-agirietan emandako informazioa egiaztatzeko eta justifikazio-agiri originalak eskatzeko (beharrezkotzat jotzen dituen kontu-ikuskapenak egiteko xedez).

25. artikulua.– Dirulaguntzak emateko betekizunak ez betetzea.

Dirulaguntza itzultzeko kausak izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoak.

1.– Betiere ez-betetze kasuak izango dira honako hauek:

a) Jasotako dirulaguntza osoa edo horren zati bat bere garaian aurkeztutako eskabidearen araberaren onartu zen jarduerari ez dagokion bestelako jarduera baterako erabiltzea.

b) Diruz lagundutako proiektuan aldaketak egitea, salbu eta, funtsezkotzat hartzen ez direlako, eskaera arrazoitua egin ostean, Justiziako zuzendariak esanbidez baimentzen baditu, betiere dirulaguntzaren onuradun izateko deialdi honetan ezarri diren gutxienerako betekizunak betetzen badira. Gutxienerako betekizunak hauek izango dira: erakunde onuradun izateko baldintza guztiei

eustea; proiektuak, proiektu bera izanda eta erakunde onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla-eta, aurrez ikusitakoa baino zigortu eta preso gutxiagori ekartzea onurak; edo, gizarteratze-helburuak beteta, helburu horiek antzeko gizarteratze-proiektuekin lortu izana.

c) Aurkeztutako eskabidean edo dokumentazioan azaltzen den daturen bat benetakoa ez izatea.

2.– Erakunde onuradunak betetzen ez baditu dirulaguntzak emateko ebazpenean edo agindu honetan ezarritako baldintzak, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du, eta ordura arte jasotako dirulaguntza eta berandutze-interesak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, honako hauetan ezarritakoarekin bat etorritik: azaroaren 17ko 38/2003 Legean (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra), azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen du) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileek bete beharreko betekizunak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu).

26. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Beste edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk eman dezakeen dirulaguntza edo laguntza ororekin bateragarriak dira dirulaguntza hauek. Baina, helburu berbererako eskuratutako dirulaguntzen zenbateko guztia aurrekontua baino handiagoa bada, agindu honen bidez emandako dirulaguntzaren zenbatekoari gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio.

27. artikulua.– Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretako bat aldatzen bada, dirulaguntzaren helburua betetzat jotzen dela eta Aginduan ezarritako betekizunak betetzen badira, dirulaguntza eman duen ebazpena ere aldatu ahal izango da. Horretarako, Justiziako zuzendariak likidazioa egiteko ebazpena emango du, eta, ebazpen horren bidez, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokituko dira.

28. artikulua.– Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta babesia.

Erakunde onuradunak isilpean gorde behar ditu Espetxe Administrazioak eman dizkion eta diruz lagundu daitekeen proiektua gauzatzeari buruzkoak diren informazio eta datu guztiak. Bereziki, isilpeko informaziotzat hartuko dira zigortuei buruzko datu guztiak, informazio hori erreserbatua eta isilpekoa izan beharko da eta ez zaio inola ere jakinaraziko (osorik edo zati bat) pertsona fisiko edo juridiko bakar bati ere.

Alderdiek, halaber, arau hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez; Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, baita horiek garatzeko ematen diren xedapenak ere, eta, zehazki, Espetxeen Erregelamenduaren 6.etik 9.era bitarteko artikuluetan ezarritakoari dagokionez.

Ondorio horietarako, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta erakunde onuradunak tratamendu propioen erantzuleak izango dira, espetxeetan barneratuei buruz jasotako datu pertsonalak erabiltzen badituzte. Erakunde batek beste alderdiaren tratamenduari buruzko datuak eskuratzeko, tratamendu-eragilea izan beharko du, eta diruz lagundu daitekeen proiektua gauzatzeko bakarrik erabiliko dira datuok. Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako edo jakinaraziko, salbu eta legitimatutako tratamendu-arduradunei lagatzen

zaizkienean edo beste organismo edo administrazio publiko batzuei lagatzen zaizkienean, legez araututakoaren arabera.

Tratamenduaren xede diren datuen helburu bakarra diruz lagundu daitekeen proiektua kudeatzea izango da. Datu horiek honako kategoria hauetan sailkatuko dira: barneratuaren identifikazio-datuak (izen-abizenak, NAN edo ISZ) eta txosten juridikoetan, sozioedukatioetan, medikoetan eta espetxe-arlokoetan jasotako datuak.

Tratamenduaren arduradunek Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 13. eta 14. artikuluetan ezarritako informazio-betebeharrak beteko dituzte interesdunen aurrean, haiei buruz jasotako datu pertsonalei dagokienez.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta erakunde onuradunak beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak ezarri behar dituzte, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea edota baimenik gabe erabiltzea edo eskuratzea eragozteko.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta erakunde onuradunak ez dute inolako erantzukizunik izango, baldin eta beste edozein alderdik ez baditu aurreko betebeharrak betetzen. Erakunde batek bere gain hartutako betebeharrak urratuz gero, hark izango du arau-hausteen erantzukizuna.